

Gernika-Lumo eta Mundaka lotzen ditu ibilbide lineal honek. Aukeran, alde batera edo bestera egiterik badago, baina Mundakan hasia gomendatzen dizuegu. Kostaldeko portu eder honetara trenez zein autobusez hel daiteke.

Iraganera bidaiatzeko aukera izango dugu Katillotxuko mendilerroa igotzen garenean. Baina lehenago Mundakako bazter eder batzuk ezagutzeko aukera eskaintzen digu txangoak. Ondartza auzo ezezagunetik errepidera helduko gara eta kontu handiz hau zeharkatuko dugu Berastegi auzotik Lamiaran aldera joateko. Ederra da Lamiaraneko parajea gora goazela Bermeo aldera dugun ikuspegia. Toponimo bitxi honek iraganeko kondairak dakartzigu gogora. Agian, ermita eraiki zutenean desagertu ziren haran honetako lamiak?

Lamiaranetik Goitizera heldukotakoan, hau zeharkatu eta ur-biltegira igoko gara. Gogorra da Katillotxuko gailurrera heltzeko azken aldapa, baina tontorrek sorpresa eder bat gordetzen du: Katillotxuko multzo megalitikoaren trikuharrietako bi. Har ezazu tarte bat hauen historia ezagutzeko!

Katillotxuko mendi-gain guztia zeharkatzen dute PR-BI 176ak eta GR 38ak. Behin Pakoteneko trikuharrira heltzean GR 38tik jarraitu beharko dugu Busturiko Goierriara jaisteko. Baina hemen GRa albo batera utzi eta Goierri eta San Bartolome auzoen arteko bide zaharretik joko dugu. Ederra da San Bartolome auzoak, basoaren mugan eskaintzen digun ikuspegia. Mahats-parrak han hemen ikusiko ditugu Altamirara bidean. Altamiratik Maiuku alderantz joko dugu. Haran honetan baso aniztasun ikaragarria dago. Bide zahar batek lotzen zituen Busturia eta Foruko udalerriak Maiukun zehar. Bide hori izango dugu gidari eta Matsa-matsarre parean estuarioaren ikuspegi ederra eskainiko digu.


Maiukuko baso ederrak atzean utzi eta Foruko Atxa estaltzen duen artadian sartuko gara. Artadia zeharkatzen duen bideetik Foruko harrobira helduko gara, jarraian San Kristobal auzora igotzeko.

Urdaibai dorrea eta San Kristobal ermita albotik igaro eta errege-bidetik egingo dugu txangoaren azken zatia.

FITXA TEKNIKOAK

18,2
km
LUZERA

325
m
MALDA



Foruko Atxatik behera



Amunategiko mahats-parrak



Lamiaranetik



Maiukuko basoak

urdaibaiko iragan megalitikoak

URDAIBAICO ESTAZIO MEGALITIKOAK

Megalismoak izaera monumentala duten iraganeko zenbait egitura arkitektoniko biltzen ditu. Ezagutzen ditugun monumentu megalitikoaren artean trikuharriak, tumuluak eta menhirrak dira gure eskualdean agertzen direnak.

10 monumentu osatzen dute Urdaibaiko ondare megalitikoak. Hauetatik 9, Sollubeko mendigunean daude eta bakar bat ezagutzen da Iluntzar aldean.

Txango honetan Katillotxu mendigunea zeharka dezakegu. Tontorrean daude induskatutako eta ostean interpretatutako 2 trikuharri. Bertako interpretazio paneletan irakurri ahalko ditugu iragan urrutiko monumentu bitxi hauen sekretuak.



KATILLOTXUKO MULTZO MEGALITIKOAK

trikuharriak


Taldeko kideak ehorzteko monumentuak ziren. Zentroan hileta ganbara zuten eta hau harri eta lurrez estalirik egoten zen. Normalean leku garaietan eraikitzen zituzten, urrunetik ikusteko moduko lekuetan.

tumuluak

Induskatu gabeko trikuharriak dira. Indusketa burutu arte ezin da jakin hileta ganbara duten ala ez.

iruinariak

Forma luzeko harriak dira. Zutik jartzen zituzten leku estrategikoetan. Hauen funtzioa sinbolikoa zen, baina ez zuten loturarik hileta-kontuekin.




Sorbiñuaga Arriatara iruinaria



busturia - busturialdea

Busturia da eskualdeari izena ematen dion toponimoa: Busturialdea. Hala ere, toponimo honen jatorriaz asko esan eta idatzi da. Koldo Mitxelena *bost* uri-tik ez ote datorren aipatu zuen aurreko mendean, udalerriko 5 auzoetan oinarritutako toponimoa izaki. Beste batzuek *buztin* uri aipatu zuten, buztinak famatu egin baitzuen Busturia. Baliteke....



ikurrak

- | | | | | | |
|--|------------------|--|----------------------|--|-------------------------|
| | Abiapuntua | | Natura2000sarea | | Dorretxea |
| | Helmuga | | Ikuspegi panoramikoa | | Naturgune interesgarria |
| | Garraio publikoa | | Atsedengunea | | Mahats-parrak |
| | Turismo bulegoa | | Iturria | | Gailurra |
| | Aparkalekua | | Eliza | | Ondare megalitiko |
| | Taberna | | Ermita | | |